

23.-AZKENENGO 50 URTEAK

AZTERTZAILLEAK

Adorno ta Markuse marx-zaleak sortu eben Frankfurt'eko eskolea. Egoera txarra egoan aldi aretan naziak lenengo eta II guda gero. Gure filosofiak ameriketara iges egin bear izan eban.

Onein elburua gizartea aztertzea da, Marx'en dialektikaz baiña ez sobiet'arrakaz.

ADORNO (1903-1979)

Gizarte aberatsak eta goseak illik bizi diranak gogoratzen dauz.

Fazismu guztiai dautse gorrotoa, Errusia'koari be bai.

MARKUSE 1818-1979)

"Neurri bakarreko gizona", 1964n. urtean argitaratua, da bere libururik onena. Au be gizarte-aztertzailea da baiña Freud'en aurrean dagoala. Freud'ek onartzen dauan zapalkuntzaren bidea ez da onartzen, beste kultura bat eskatzen dau. 1968n. urteko iraultzaren aurrean.

...

ERMENEUTIKAREN BIDEA

Argi berba egitea eta itzulpenak ondo egitea eskatzen dabe eta idazkiak azaltzeko bidea da euren ermeneutika.

Besteai lagundu bear jake, esanak eta idatziak ulertzen..

Norberak norberaren burua be ulertu egin bear dau eta mundua ulertzen alegindu.

GADAMER (1900-2002)

Heidegger'eri jarraitzen dautso, baiña Platon eta Aristoteles aitzu barik eta Hegel bere erara artuta..

Beti aurrean daukagun mundua eta inguruko gizakien ulermena kontuan artzea, ori da ermeneutika..

Izkuntza da orretarako bidea, batez be alkar-izketea.

...

ERAKUNDE-BIDEA (Estrukturalismoa).

Izkuntzalariak asi eben bide au eta gero filosofoak jarraitu.

SAUSSURE izan zan asi ebana (1915). "Barri-aldiaren ostea" edo "post-modernidad" esaten jako bide oneri.

1979n. urtean Lyotard'ek sortu eban "Barri-aldiaren ostea" ori eta "post-modernidad" berbea be berak asmatua da. Eta or dago pop artea, rock eresiak, eta hippiak.

68n. urteko iraultzak il ebazan Buru-Argien gizabidea eta Angland'eko garbikeria (puritanismo). Ortik sortu zan "pentsaera makala" Battino'k deritxan lez, "pentsaera nekatua" dala diño Bataille'k eta "deskonstrucción" Derrida'k, "izkuntza-jokoak" ostera Lyotard'ek. Or sortu zan 68n. urteko oiua: "Irudimena agintaritzara". Eta ortik datoz aspaldian albotik dabiltzan ekintzak: "Feministak", "ekolojistak", "omoseksualak"...

Filosofo on bi begiratuko doguz Lyotard eta Derrida.

LYOTAR (1924-1998)

Lengo filosofi-erakundeak berba ta berba baiño ez dabe egin, "metanarratiba" k dira. Esaldiak izan bear dabe nagusi.

DERRIDA (1930)

Judatarra zan eta orregaitik alboratua. Sorbona'n izan zan irakasle eta gero beste leku askotan.

Lengoa "logozentrismo" zan eta "metanarratiba" artzeko aldatu bear gara eta ortik etorriko da "dekonstrucción"

Pentsaera orretan gizona ezerezean geratzen da.

...

AMAITZEN:

Filosofia III mile-urtera nekatuta eldu jaku eta azken-azkenean gizakiaren eriotzea iragarri dau, lenago beste batzuk Jainkoaren eriotzea iragarri eben antzera.

Or amaitzen da Buru-argitudunak arro agertu eben gure aldiko filosofia. Orrantza bultzatu eban gure mundua Nietzsche' k.

XX gizaldiko guda bien bitartean sortu da negar-aldi ori eta, arro egoan Marx-bidea be Berlin'go ormeagaz batera jausi zan.

Erreta dagon mundu orren ke-artean agiri dira itxaropenaren argi motel batzuk: Izzate-zaletasuna edo eksistentzialismoa, izkuntza-bideak, ... baiña laster amaituko dira.

Eta ori orrelan dala, trebe-bideko arloak aurrera doaz bildur barik eta sendo, baiña Jainkoa il dabenak eurak geratu dira ilda.

Ez daigun aitzu gizakiaren duintasuna eta billatu daigun egia, orixe izango da filosofia egitea.

OLAZAR'tar Martin'ek

("Palabra" agialetxearen "Historia de la Filosofía" tik)